

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENERDAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA

HERRITARREN
SEGURTASUNA



2012



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	4
2. GENERO-ERAGINA EBALUATZEKO AZERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	6
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN	6
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK	8
2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA .	11
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	12
2.5. BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDU ESPEZIFIKOAK ...	15
3. LEGEDIA	18
4. DATU-ITURRIAK.....	20
5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK	23

1. TESTUINGURUA

Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua agintzen duenez «pertsona orok askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea du».

Dokumentu honen ondorioetarako, segurtasuna l egoera pertsonal bat da, objektiboa nahiz subjektiboa, besteengandik norberarengan edo norberaren ondasunetan asmo txarreko indarkeriarik edo indarkeria horren mehatxurik izateko arriskurik ez duena. Ez dira jorratuko, bada, segurtasun publikoarekin zerikusia duten bestelako gaiak, hala nola, larrialdi-zerbitzuak, babes zibila edota bide-segurtasuna.

Herritarren segurtasuna, bestalde, poliziaren ikuspegitik aztertuko da gehienbat, gai hori, indarrean dagoen legediaren arabera, poliziaren eskumenekoa baita.

Lehenik eta behin, azpimarragarria da alde handia dagoela emakumeek eta gizonek egiten dituzten delituetan. Delituak egiten dituzten gehienak gizonezkoak izaten dira eta, neurri apalagoan bada ere, gizonezkoak beraiek izaten dira gehienbat delituen eta hutsegiteen biktimak ere. Joera hori aldatu egiten da, ordea, familiaren barruan eta sexu-askatasunaren aurka egiten diren delituetan, horietan batez ere emakumeak izaten baitira biktimak. Emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten duten indarkeria da gertakari horren arrazoi nagusia, emakumeen aurkako indarkeria delakoa, gure garaiko gaitzik handienetakoa, ez baita gizonen kasuan gertatzen.

Badago beste alde nabarmen bat ere; estatistikei dagokienez, gizonezkoek delituen biktima izateko emakumeek baino aukera handiagoak dituzten arren, segurtasun ezaren sentipena handiagoa izaten da emakumeengan, eta horrek nabarmen mugatzen dizkie joan-etorrietarako askatasuna eta oinarriko askatasunak bete-betean erabili ahal izatea.

Pertsonen eta ondasunen segurtasuna zaintzeko ardura duen poliziari dagokionez, emakumeen parte-hartzea oso txikia izateaz gain, bakarrik agertzen dira behe-mailako kategorietan eta eginkizun nagusizat plangintza, koordinazioa, administrazio-prozedurak bideratzea, ikerketa eta kudeaketa dituzten unitateetan; babesaren alorrean eta baliabide eragileetan eginkizun bereziak dituzten unitateetan, aldiz, gizonezkoak egoten dira gehienbat.

¹ Definizio hau Nazio Batuen Garapenerako Programakoa oinarritzat hartuta egokitu zen honako dokumentu honetan: *Venciendo el temor: (In)seguridad ciudadana y desarrollo humano en Costa Rica. Informe nacional de desarrollo humano 2005*. San José: PNUD, 2006.

Azken ikuspuntu horri loturik esan beharra dago, halaber, emakumeek oso ordezkari gutxi dituztela bai erantzukizuneko kargu eta postuetan, bai eta herritarren segurtasunarekin zerikusi zuzenagoa duten kide anitzeko administrazio-organoetan ere.

Bestalde, pertsona atxilotuei zuzendutako arretarako eta gizarte-orientazioko zerbitzuak gizonetzkoek erabiltzen dituzte gehienbat; delituen biktimei laguntzeko zerbitzuei dagokienez, ostera, emakumeak izaten dira horien erabiltzaile nagusiak.

Emakumeak «sexu ahultzat» irudikatzen dituzten rolek eta estereotipoek – gizonetako sendo, ausart, arduratsu eta ahaltsuen babes behar duten balizko biktimatzat azaltzen dituztenek– argitzen dituzte neurri handi batean alde eta desberdintasun horiek guztiak. Testuinguru horretan, indarkeria elementu nagusi bilakatzen da gizonen sozializazioan, emakumeen, beste gizon batzuen edota norbere buruaren aurka erabiltzeko.

Herritarren segurtasunari dagokion esparruan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egin ahal izateko funtsezkoa da indarrean dagoen legediak berdintasunaren alorrean ezarritako aginduak betearaztea bultzatzea; agindu horien artean daude, besteak beste, rola aldatzea; emakumeei ahalmena ematea; gizonetzkoak berdintasunaren alde engaiatzea; indarkeriazko portaeren prebentzioan eta portaera horien biktimen laguntzan hobetzea –arreta berezia ipiniz emakumeen aurkako bortizkerian–; eta, horiezaz gain, emakumeen eta gizonetzkoen presentzia berdina eta orekatua bultzatzea, bai polizian, bai eta sektore horretako erabakiak hartzeko esparruetan ere.

2. GENERO-ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Beste pertsona batzuegandik asmo txarreko indarkeriarik edo indarkeria horren mehatxurik izateko arriskurik ez duen egoera pertsonala denez, herritarren segurtasunak lotura zuzena du arriskuarekin, berdin delarik arriskua benetakoa den (objektiboa) edo hautemandakoa (subjektiboa).

Arriskuaren ikuspuntu objektibotik begiratuta, emakumeek edo gizonezkoek eginiko delituetan alde nabaria dagoela aipatu behar da. EAEn, 2010ean, **delituak egiteagatik zigortutako** 12.269 pertsonetatik % 90 gizonezkoak izan ziren eta portzentaia handi hori mota guztietako delituetan agertu zen.

Zigortutako pertsonak delitu mota bakoitzean	Guztira	G.	G. %	E.	E. %
1. Giza hilketa eta giza hilketa motak	54	51	%94	3	%6
2. Abortua	0	0	%0	0	%0
3. Kalteak	1.999	1.827	%91	172	%9
6. Askatasunaren aurka	471	455	%97	16	%3
7. Torturak eta osotasun moralaren aurka	127	115	%91	12	%9
8. Sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurka	115	114	%99	1	%1
9. Sorospen-eginbearra ez betetzea	5	5	%100	0	%0
10. Bizitza pribatuaren eta norberaren irudirako eskubidearen aurka	18	13	%72	5	%28
11. Ohorearen aurka	5	3	%60	2	%40
12. Familiako harremanen aurka	217	197	%91	20	%9
13. Ondarearen edota gizarte- eta ekonomia-ordenaren aurka	2.427	2.091	%86	336	%14
14. Herri Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurka	28	28	%100	0	%0
15. Langileen eskubideen aurka	70	60	%86	10	%14
15. BIS. Atzeriko herritarren eskubideen aurka	5	5	%100	0	%0
16. Lurraldearen antolamenduari buruzkoak	10	8	%80	2	%20
17. Segurtasun kolektiboaren aurka	5.044	4.661	%92	383	%8
18. Faltsutzei buruzkoak	201	160	%80	41	%20
19. Herri Administrazioaren aurka	6	4	%67	2	%33
20. Justizia Administrazioaren aurka	707	635	%90	72	%10
21. Konstituzioaren aurka	0	0	%0	0	%0
22. Ordena publikoaren aurka	749	663	%89	86	%11
23. Traizioa, bakearen eta nazio-defentsaren aurka	0	0	%0	0	%0
24. Nazioarteko Erkidegoaren aurka	0	0	%0	0	%0
Kontrabandoa Zigortzeari buruzko Lege Organikoa	2	2	%100	0	%0
Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoa	9	6	%67	3	%33
Aire Nabigazioko Zigor eta Prozesu Legea	0	0	%0	0	%0
Guztira	12.269	11.103	%90	1.166	%10

EAEn, Ertzaintzak ezagututako **delitu eta huts-egiteen biktima** guztietatik (54.533) % 58 gizonezkoak izan ziren 2008. urtean.

Hala ere, familiaren esparruan izandako arau-hauste penalen 4.809 biktimetatik % 72; bikote barruko indarkeria kasuetako 3.281 biktimetatik % 79; eta sexu-askatasunaren aurkako delituen 390 biktimetatik % 86 emakumeak izan ziren. Datu horiek egiaztatzen dute alde nabarmena dagoela, delituen eraginari dagokionez, emakume eta gizonen artean; izan ere, emakumeen aurka indarkeria berezia erabiltzen baita emakume izate hutsagatik, gizonen kasuan agertzen ez dena. **Emakumeen aurkako indarkeriaz** ari gara; gure Erkidegoan eta Ertzaintzak ezagututako kasuei dagokienez, indarkeria mota horren ondorioz 2 emakume hil zituzten 2011n eta 3.829 emakumeri eragin zieten 4.858 biktimizazio² ere gertatu ziren.

Emakumeen aurkako indarkeria motak (2011)	Biktimizazioak	Biktimak
Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria	3.699	2.808
Familia barneko indarkeria (bikotekidearena edo bikotekide ohiarena izan ezik)	922	787
Sexu-askatasunaren aurka (familia barrukoa izan ezik)	237	234
GUZTIRA	4.858	3.829

Arriskuaren ikuspegi subjektiboago batetik, berriz, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak egindako **segurtasun-pertzepzioari** buruzko galdeketen emaitzek erakusten dutenez, segurtasun ezaren sentipena askoz handiagoa da emakumeengan gizonengan baino. Hala, emakumeen % 19,7 –gizonen kasuan, % 3,8– ez da «batere seguru» sentitzen bizi den eremuan gaez bakarrik ibiltzeko.

Segurtasun-sentipena bizi den eremuan gaez bakarrik ibiltzeko (2008)	E %tan.	G %tan.
Oso seguru	% 23,6	% 47,9
Nahiko seguru	% 34,5	% 34,4
Seguru samar	% 20,8	% 13,0
Batere seguru ez	% 19,7	% 3,8
Ez daki/ Ez du erantzun	% 1,4	% 0,9
GUZTIRA	% 100,0	% 100,0

² Estatistikan, legez kontrako delituen bat jasan duten pertsonen kasu guztiak zenbatzen dira eta Ertzaintzak halakotzat erregistratu ditu herritarren salaketaren bidez edota dagokien atestatuaren bitartez. Pertsona bakar batek jasandako mehatxuengatik salaketa bat baino gehiago izan diren kasuan, esate baterako, salaketa bakoitzak biktimizazio bat sortuko du.

2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Polizia-zerbitzuak: Pertsonen eta ondasunen segurtasuna zaintzeaz arduratzen den poliziara sartzerakoan, alde nabarmenak daude emakumeei eta gizonezkoiei dagokienean.

Zehazki, 2011n Ertzaintza osatzen zuten 8.102 ertzainetatik soil-soilik % 16 ziren emakumeak. Horrezaz gain, emakumeak behe-mailako kategorietan daude (bereizketa bertikala); komisarioez edo komisarioordez osatutako maila exekutiboan, hain zuzen, emakume bakar bat dago eta 101 gizonezko.

Ertzaintzan diharduten ertzainak mailaz maila (2011)	Guztira	E.	E. %	G.	G. %
Ertzainak	6.206	685	%11,03	5.521	%88,96
1. ertzainak	770	45	%5,84	725	%94,16
Ikasten ari diren ertzainak	291	282	%96,91	9	%3,09
Akademiako ikasleak	229	221	%96,51	8	%3,49
Komisarioak	36	1	%2,78	35	%97,2
Ofizialak	134	9	%6,72	125	%93,28
Komisarioordeak	66	0	%0	66	%100
Ofizialordeak	370	36	%9,73	334	%90,27
Guztira	8.102	1.279	%15,79	6.823	%84,21

Lehen promozioan izan ezik³, emakumeek Ertzaintzara sartzeko egin dituzten eskaeren ehunekoak VIII. promozioiko % 12,28ren eta XXI. promozioiko % 32,36ren artekoak izan dira. Egiaztaturik dago «sarrerakoan unibertsitateko ikasketak bezalako merezimenduak kontuan hartzen direnean edo kolektiboaren aipamen berezia egiten denean, emakumeen kopuruak gora egiten duela»⁴.

Ertzainen banaketan bereizketa horizontala ere badago; izan ere, emakumeak plangintza, koordinazioa, administrazio-prozedurak bideratzea, ikerketa eta kudeaketa eginkizun nagusizat dituzten unitateetan dauden bitartean, babesaren alorrean eta baliabide eragileetan eginkizun bereziak dituztenetan gizonezkoak egoten baitira.

Hona hemen Ertzaintzan emakumeen presentzia areagotzeko proposatutako⁵ zenbait jarduera-ildo:

³ Lehen promozioan, 1981. urtekoan, soldadutza egin izana nahitaezko betebeharraren zenez, emakumeak bazterturik gelditu ziren. Hurrengo hiru deialdietan (1982-1983), baldintza hori kendu eta emakumearen sarrera mugatua onartu zen: % 10ekoa bigarren deialdian eta % 15ekoa hirugarren eta laugarren deialdian.

⁴ Edurne González Torre. *La situación de la mujer en la Ertzaintza*. Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Akademia. 2011.

⁵ Ikus aurreko oharra.

- Sarrerako eta sustapenerako oztupoak ezagutzera bideratutako ikerketa.
- Kanpo eta barne mailako komunikazio-politika, honako helburu hauekin: argi erakustea ertzaintza-lanaren xedea, esku-hartzea ez ezik, delinkuentziaz arduratu eta hari aurre hartzea ere badela, eta, beraz, indarra baino gehiago trebetasuna behar dela (gizarte mailako trebetasuna; taldean lan egiteko gaitasuna; diziplina...); erakundearen emakumeen presentzia agerian ipintzea; eta emakumeen aldeko ebazpen judizialen berriak zabaltzea.
- Akademiako trebakuntza eta lan-jarduera Ertzaintzaren Berrantolaketa eta Modernizazio Planean jasotako polizia-ereduari dagokionez egokiak ote diren aztertzea, plan horretan erkidegoan txertatutako eta herritarrek hurbilekotzat izango duen polizia prebentiboaren alde egiten baita, delituak egitea galarazteko.
- Kontziliazio-neurriak ezartzea, emakumeek familian bizitzeko eragozpenik izan ez dezaten burutu behar dituzten lanetan.

Atxilotuari laguntza emateko zerbitzuak: ALEZ zerbitzua Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren doako baliabidea da; zerbitzu hori atxilotuen egoera juridikoari buruz erabakiak hartu behar dituzten erakunde judizialei informazio egokia helarazteko premiari erantzunez sortu zen, eta, aldi berean, atxilotu horiei laguntza egokia emateko ere bai, beren gatazkak gainditu eta gizarteratzeko modua izan dezaten.

Zerbitzu hori gizonezkoek erabiltzen dute gehien-gehienik. Zehazki, 2008an zerbitzua erabili zuten 1.932 lagunetatik % 88 gizonezkoak izan ziren; eta ez da harritzekoa, delituak eta huts egiteak egiten dituztenen artean, gizonezkoen ehunekoak kopuru horren ingurukoak izaten baitira.

Delituetako biktimei laguntzeko zerbitzua: BLZ zerbitzua Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren doako baliabidea da, biktimei sistema penalarekin izango dituzten harremanetan laguntzea helburu nagusitzat duena.

Gutziz deigarria da zerbitzu honen erabiltzaile gehienak emakumeak izatea. Esan bezala, 2008ko datuen arabera, Ertzaintzak ezagututako delitu eta huts egiteen biktimeen % 58 gizonezkoak izan ziren arren, urte horretan biktimei laguntzeko zerbitzua erabili zuten 3.749 lagunetatik % 88 emakumeak izan ziren. Segur aski, alde horrek bi arrazoi nagusi ditu: 2003an, etxeko indarkeriaren biktimei buruzko babes-aginduen koordinazio zentroak BLZ zerbitzuan sartu izana, batetik; eta estereotipo eta rol sexistek giza jokaeretan duten eragina, bestetik; izan ere, estereotipo eta rol horien

arabera, emakumeak sexu «ahula» eta babesa –kasu honetan, erakundeen babesa– behar duten biktimak baitira, eta gizonak, aldiz, laguntzarik behar ez duten izaki sendo modura agertzen dira; hauen kasuan, gainera, laguntza eskatzea ahuleziatzat eta gizontasun gutxiko jokabidetzat har daiteke.

Eskatzen duten zerbitzu motaren arabera ere, aldeak daude gizonezkoen eta emakumeen artean. Gizonek laguntza juridikoa eskatzen dute gehiago (gizonezkoen % 54,6k eskatzen du eta emakumeen % 33,3k), eta emakumeek, berriz, gizarte laguntza (emakumeek % 45,3; gizonezkoek, aldiz, % 25,9) eta laguntza psikologiko gehiago (emakumeek % 12,31, gizonezkoek % 7,82).

Eskaera egitera behartzen dituzten delituei dagokionean, emakumeek tratu txarreatik (% 48,9), mehatxuengatik (% 20,3) eta kalteengatik (% 10,3) jotzen dute gehienbat BLZ zerbitzura, eta gizonek, berriz, kalteengatik (% 27), tratu txarreatik (% 25,8) eta mehatxuengatik (% 16,9).

2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Erantzukizunezko karguak: Eusko Jaurlaritzan, 2011ko datuen arabera, gizonezkoak ziren Herrizaingo Sailaren nahiz Segurtasun Sailburuordetzaren buru; Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Akademiaren zuzendaria, ordea, emakumea zen. Ertzaintzari dagokionez, 102 komisario eta komisariordeen artean emakume bakar bat zegoen, eta ofizialorde eta ofizialei dagokienez, 159 gizonezkoak ziren eta 37 emakumeak.

Kide anitzeko organoak: Herritarren segurtasunari zuzenago loturik dauden Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari atxikitako kide anitzeko organoak ia oso-osorik gizonez osaturik zeuden, 2008 urteari dagozkion datuek erakusten dutenez.

Organoak	Guztira	E.	E. %	G.	G. %	Batzorde-buruak
Ertzaintza Kontseilua	11	0	0	11	100	G.
Segurtasunerako Euskal Batzordea	12	1	8,3	11	91,7	G.
Toki mailako koordinazio-batzordeak	21	0	0	21	100	G.
GUZTIRA	44	1	2,3	43	97,7	G.

Hala ere, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundearteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak, Emakumearen Euskal Erakundeari –Emakunderi– atxikitakoak, emakume bat du batzorde-buru, eta 14 emakumez eta 3 gizonez osaturik dago.

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Generoarekin zerikusia duten gizarte-arauek eta balioek argitzen dituzte emakume eta gizonen arteko aldeak eta desberdintasunak, pertsonen segurtasunari buruzko faktoreei dagokienez.

Indarkeriaren erabilera, gertakari sozial modura, eta gizonezkoen nortasunaren eraikuntza estuki loturik daude. Gizon izaten –emakume izaten bezalaxe– ikasi egiten da, eta ikasketa hori familian, eskolan, erlijioan, komunikabideetan, eta abarretan irakasten den lehen ikasgaietako bat da, eta garrantzitsuenetako bat ere bai; sozializazio-prozesua delakoaren esparru horretan, bada, pertsonak elkarbizitza arautzen duten talde-arau eta -balioak barneratu, ulertu eta onartu ohi dituzte. Prozesu hori guztiz eraginkorra da berezko zerbait bailitzan ikusten delako, ezarritako arauak betetzen dituen saritu, eta betetzen ez dituen zigortu edo baztertzeko delako eta, sexuaren arabera bereizketak eta ñabardurak egiten badira ere, pertsona ororentzat unibertsala delako.

Indarkeria, ordea, askoz gehiago agertzen da gizonezkoen sozializazio-prozesuan emakumeenean baino. Estatu mailan nerabeen artean eginiko azterketetan agertzen denez, mutilen % 14,4 nahiko edo oso ados dago iraindu zaituenari jotzea bidezkoa dela irizterakoan; % 11,4k bidezkoa dela iritzi dio batzuetan nor agintzen duen jakin dezaten besteei mehatxu egitea; % 22,7ren arabera, justifikaturik dago gauzaren bat ostu dizunari erasotzea; eta % 10,7ren iritziak, itxura oldarkorragoa duen gizona erakargarriagoa da; neskei dagokienez, % 4, % 3,1, % 7,2 eta % 7,4 dira, hurrenez hurren, halako iritziak dituztenak⁶. EAeko beste azterketa batzuetan agertzen denez, nerabeen 13,4, neska nahiz mutil, nahiko edo oso ados daude etxean aitak agindu behar duela irizterakoan. Batere ados ez dauden eta oso ados daudenen arteko eskala batean (1etik 5era bitartean), mutilen batez besteko puntuazioa 2,4koa da eta neskena, berriz, 1,8koa⁷.

Gizonezkoak sendoak, burujabeak, gogorak, ausartak, oldarkorak, sentiberatasun gutxiak, «limurtzaileak» eta sexualki gogotsuak izan behar dutelako ustea izateak, eta gizonezkoen familiako babesaren eta ekonomia-baliabideen hornitzaile, esparru publikoetako protagonista eta botere erabiltzaile izatearen eginkizun nagusia emateak argitzen dituzte batzuen eta besteen arteko alde horiek. Indarkeria oso baliabide eraginkorra da boterea eskuratu eta mantendu ahal izateko; horrek argi azaltzen du gizonen sozializazioan duen nagusitasuna, edota gizonen

⁶ *Igualdad y prevención de la violencia de género en la adolescencia*. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. 2011.

⁷ *Adingabekoei balioak transmititzea*. Txosten berezia. Arartekoa. 2009.

artean guztiz barneratu eta zabaldutako gaia izatea, emakumeen aurka edo beste gizonetako batzuen aurka erabiltzeko, bai eta beren buruen aurka erabiltzeko ere (droga gehiegi kontsumitzea edo suizidioa bezalako norberaren kalterako jokabideen bitartez, esate baterako, horiek guztiek askoz eragin handiagoa baitute gizonengan)⁸.

«Kiroletan eta zineman, literaturan nahiz gerran, gizonen indarkeriazko ekintzak edo eraso bortitzak (kasu honetan, beste gizon batzuen aurkakoak normalean) goraiatu egiten dituzte. Indarkeria, onartu ez ezik, *glamourrez* bete eta saritu ere egiten da. Gizarte patriarkalen sustrai historikoan dago, hain zuzen, indarkeria bitarteko nagusi modura erabili izana gizabanakoen, pertsona-taldeen edo, geroago, nazioen arteko tirabira eta desadostasunak konpontzeko»⁹.

Gizonezkoek haurtzarotik ikasten dute indarkeria erabiltzen eta horretan erabakigarriak izaten dira mutikoen jolas eta jostailu bortitzak. Horrezaz gain, «kultura askotan mutikoak borroka, zigor eta basakeria artean hazten dira. Bizirik iraun ahal izateko, zenbaitek indarkeria jokaera modura onartu eta barneratu behar izaten du»¹⁰.

Horregatik guztiagatik, ez da harritzekoa krimen-kopuruari buruzko estatistiketan gizonetako asko, biktima bezala ez ezik, batez ere gaizkile modura agertzea; eta ez da harritzekoa ere indarkeriaren erabilera instituzional eta legala beren gain duten segurtasun-indar eta -taldeak batez ere gizonetako osaturik egotea. Hala ere, egia da, azken ikuspuntu horri dagokionez, Ertzaintza ahaleginak egiten ari dela, alde batetik, polizian sartu eta mailaz igotzeko deialdietan neurri positiboak hartuz emakumeen ordezkari guztiz eskasari aurre egiten, eta, bestetik, poliziaren eginkizuna indar fisikoaren eta errepresioaren erabilera mugatzen duten estereotipoak ezabatu eta hurbileko polizia bultzatzen, «herritarren segurtasun-faltaren sentrazioa galaraziz, zeren polizia-eskumenei buruz ez baitute ezer jakin nahi eta bai, ordea, beren arazoan konponbideei buruz»¹¹.

Indarkeriaren erabilera, ordea, ez da funtsezko elementu bat emakumeen sozializazio-prozesuan. Emakumeei, batez ere, zainketa-lanen eta ugalketaren arduradun nagusi izatearen eginkizuna dagokie; esparru publikoarekin zerikusia duten arlo guztietan, bigarren mailako eta gizonaren mendeko zereginak beteko dituztela uste da, eta, horrezaz gain, atseginak, eskuzabalak, erakargarriak, agindupekoak, pasiboak, pairakorrek, otzanak, etab., izango direla. Hain zuzen ere, gizonak babestu behar duen sexu ahultzat hartu ohi da emakumea.

⁸ Estatu mailan 2005ean droga-kontsumoaren ondorioz hildakoen % 86 eta EAEn 2010ean bere buruz beste egin zuten pertsonen % 81 gizonetakoak izan ziren.

⁹ Michael Kaufman. *The Seven Ps of Men's Violence*. Toronto, 1999. 2. orr.

¹⁰ Id., 5. orr.

¹¹ Ertzaintza Berrantolatu eta Modernizatzeko Plana. 2010. 19. orr.

Horrela, emakumeak biktima ideiari loturik agertzen dira askotan. Egia da alde handia dagoela emakumeek erabiltzen duten indarkeriaren eta jasaten dutenaren artean, jasaten dutena askoz handiagoa baita; eta egia da, halaber, gizonek ez bezala emakumeek emakume izate hutsagatik indarkeria jasaten dutela, gizonezkoen boterearen mende jartzeko. Ikusi den bezala, ordea, delitueta 10 biktimetatik 6 inguru gizonezkoak izaten dira, eta, hala ere, jendearen irudipenean biktimak emakumeak izaten dira beste guztien gainetik. Estatistikari begiratuta, emakumeek gizonek baino aukera gutxiago dituzte delitueta biktima izateko, baina, hala ere, emakumeen segurtasun-sentipena askoz txikiagoa da.

Benetako arriskuaren eta emakumeek sumatutakoaren arteko alde hori argitzerakoan, «bada inoiz aipatzen ez den indarkeriarik ere: indarkeria sinbolikoa; ez da ikusten, baina indarkeria horren gainean eraikitzen da emakumeen beldurra»¹². Indarkeria horrek badu zerikusirik, batetik, komunikabideetako, filmetako, etab. etako, mezu eta irudien ugaltzarekin, eta mezu eta irudi horien eta errealitatearen arteko aldearekin, emakumeak mota guztietako erasoak jasan beharko dituzten babesgabeko biktima modura agertzen baitira; eta, bestetik, emakumeen bestelako aldeak eta egoera horiei aurre egiteko eskura dituzten mota guztietako baliabideak erakusten dituzten mezu eta irudiak alde batera uztearekin. «Emakumeak ez dira beldurra dutela jaiotzen, beldurra izaten irakasten zaie. Ez zaie bere burua defendatzen irakasten eta horregatik erraza da emakumeei erasotzea»¹³.

Beldurra jendea menderatu eta kontrolatzeko tresna ahaltu eta eraginkorra da eta, kasu honetan, batzuen eta besteen arteko desberdintasuna betiketaz gain, joan-etorrien askatasuna eta oinarritzko eskubideak bete-betean erabili ahal izatea mugatzen dizkie herritarren erdiei, ez baita ahaztu behar indarkeria sinbolikoa delakoak era batera edo bestera emakume guztiei eragiten diela.

Herritarren segurtasunaren esparruan egiazko berdintasun eraginkorra lortzeko, rol eta estereotipo sexistak baztertu eta indarkeria gutxiagoko eta berdintasun handiagoko bizi-ereduak bultzatu behar dira hainbat motatako sozializazio-baliabideen bitartez (familia, eskola, komunikabideak,...). Horrek emakumeekin nahiz gizonezkoekin lan egitea eskatzen du, batez ere emakumeei ahalmena ematea eta gizonek berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka parte-hartze handiagoa izatea bultzatzeko.

¹² Beldur Barik: *indarkeria sexistaren aurkako gida neska-mutilentzat*, 2009. 3. orr.

¹³ Id.

2.5. BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUNAREN ALORREKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
Emakumeen autonomia , burujabetasuna eta erabakitzeke ahalmena areagotzea bultzatu eta emakumearen egoera sozial, ekonomiko eta politikoa sendotzea.	4/2005 Legearen 1. art. V. PIMH 1.1.1 helburua
Berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka lan egin nahi duten pertsonen kopurua, bereziki gizonena , handitzea.	4/2005 Legearen 1. art. V. PIMH 1.1.1, 6.1.2 eta 6.1.3 helburuak
Sexuaren arabera rol ezberdinak egokitzen dituzten patroik soziokulturalak desagerraraztea, izan ere, indarkeria sexistaren jatorrian dagoen gizon eta emakumeen arteko botere banaketa rol horietan oinarritzen da.	4/2005 Legearen 1. art. V. PIMH 1.2.2, 1.2.3 eta 1.2.5 helburuak
Euskadiko Segurtasun Plan Orokorrean eta lurraldeko eta sektoreetako planetan genero ikuspuntua txertatzea eta horien lehentasunen artean jasotzea emakumeen aurkako indarkeria mota eta manifestazio guztiak desagerraraztea.	15/2012 Legearen 67.1 art.
Ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraio politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko neurriak hartzea, kontuan izanik, besteak beste, pertsonen segurtasunari buruzko gaiak (...).	4/2005 Legearen 46. art.
Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren lekuak ezagutu eta, gune horiek neutralizatzeko neurriak abiarazteaz gain, emakumeak segurtasunik gabe sentituko diren leku berriak sortzea galaraziko duten irizpideak ezarriko dituzten udalerrien kopurua areagotzea bultzatzea.	V. PIMH 6.2.3 helburua
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko eta babesa emateko dauden poliziako kideei prestakuntza espezializatua ematea.	4/2005 Legearen 54. art. V. PIMH 6.2.3 helburua Erakunde arteko II. Hitzarmena 4. xedapena
Polizei beharrezko baliabideak ematea emakumeen	4/2005 Legearen 54. art.

<p>aurkako indarkeria-egoeretan esku hartzerakoan eraginkortasunik handiena lortze aldera, eta, bereziki, etxeko tratu txarren biktima direnen babeserako onartzen diren neurri judizialen betearazteari eta kontrolari dagokionez. Horren guztiorren helburua, hain zuzen, biktimen segurtasuna bermatzea da, eta biktima horiek, beren borondatearen aurka, beren etxebizitzak utzi behar izatea saihestea.</p>	<p>Erakunde arteko II. Hitzarmena 4. xedapena</p>
<p>Estatuko segurtasun Indar eta kidegoetan, genero-indarkeriaren prebentzioan eta onartutako neurri judizialak betearaztearen kontrolean espezializatutako unitateak sortzea.</p>	<p>1/2004 LOaren 31.1 art.</p>
<p>Ertzaintzan emakumeen presentzia handitzea, gutxienez ertzain guztien % 35 izan arte.</p>	<p>PRME 2.3 atala</p>
<p>Erakundeetan erabakiak hartzeko maila eta esparru guztietan emakumeen ordezkariak handitzea, bai eta gatazken prebentzio, kudeaketa eta konponbiderako bitarteko guztietan ere.</p>	<p>V. PIMH 3.2.1 helburua Nazio Batuen 135/2000 Ebazpena</p>
<p>Beharrezko diren jarduerak bultzatzea Udaltzaingoak organo judizialek onartutako neurriak betearazten lankidetzan aritu daitezten, Estatuko segurtasun indar eta kidegoekin duten lankidetzaren esparruaren barruan,</p>	<p>1/2004 LOaren 31.2 art.</p>
<p>Emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan, ikerketa eta informazioa biltzeko sistemen hobekuntza eta homogeneizazioa bultzatzea, gai horretan esku hartze publikoa hobetzeko erabili ahal izan daitezten.</p>	<p>4/2005 Legearen 51.1 art. 264/2011 Dekretuaren 2. art. V. PIMH 6.2.1 eta 6.2.2 helburuak</p>
<p>Aldian behin, Euskadiko Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasunari eta eraginari buruzko azterketa egitea.</p>	<p>4/2005 Legearen 51.2 art. 29/2011 Dekretuaren 9. art. Erakunde arteko II. Hitzarmena 5. xedapena</p>
<p>Engaiatutako erakundeen artean, emakumeen aurkako indarkeria kasuetarako lankidetzahitzarmenak eta jarduera-protokoloak onetsi eta ezartzea bultzatzea.</p>	<p>4/2005 Legearen 43.3 eta 51.2 art. 1/2004 LOaren 31.3 art. 3/2007 LOaren 62. art. 29/2011 Dekretuaren 8. art. V. PIMH 6.2.4 eta 7.2.1 helburuak Erakunde arteko II. Hitzarmena 4. xedapena</p>

<p>Modu proaktiboan lan egingo duten hezkuntza, osasun eta polizia sistemetako nahiz sistema judicial eta sozialetako profesionalen kopurua handituz, emakumeen aurkako indarkeria kasuen prebentzioa eta detekzio goiztiarrak areagotzea, ezarritako protokoloen arabera esku hartuz.</p>	<p>15/2012 Legearen 67.2.b art. V. PIMH 7.1.1 helburua</p>
<p>Oinarrizko laguntza prozesuaren aurretik, prozesu garaian eta prozesuaren ondoren, indarkeriaren biktima izan diren emakumei erabakiak hartzen eta itxaropenak egokitzen laguntzea, engaiatutako zerbitzuetako profesionalen kopurua handituz, hizkera ulergarriari baliabideei buruzko nahiz laguntza, osasun eta polizia prozedurei edo prozedura juridikoei buruzko informazioa profesionaltasunez eman dezaten.</p>	<p>27/2003 Legearen 2.3 art. V. PIMH 7.2.2 helburua</p>
<p>Administrazioek emandako zerbitzu eta baliabideetara jotzea erabakitzen duten emakume biktimen kopurua areagotzea, arreta berezia eskainiz zerbitzu eta baliabide horietara heltzeko aukera gutxiago duten emakumei, informazio horretara heltzeko moduak ugaritu eta hobetz.</p>	<p>V. PIMH 7.3.3 helburua</p>
<p>Oinarrizko laguntza prozesuaren aldi guztietan, mota guztietako genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen segurtasuna eta atentzio egokia bermatzea, bai eta haien errehabilitazio osoa eta jasandako kalteak erabat konpontzea.</p>	<p>15/2012 Legearen 67.2.c art. V. PIMH 7.2.5 helburua</p>
<p>Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko prozesuetan sistema bat ezartzea integrala, koordinatua eta kalitatekoa, prozesu horiek dituzten eraginkortasunaren eta emaitzen segimendua eta azterketak eginez.</p>	<p>15/2012 Legearen 67.2.d art. V. PIMH 7.3.8 helburua</p>
<p>Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko zerbitzuei dagokienez, lurraldeen eta udalen arteko desberdintasunak murriztea, bai laguntzaren kalitatean, bai eta baliabideen eskuragarritasunean eta zuzkiduran ere, arreta berezia ipiniz landa-eremuetako udaletan.</p>	<p>V. PIMH 7.2.9 helburua</p>

OHARRA: Herritarren segurtasunari buruzko berdintasun-agindu espezifikoek gain, modu orokorrean sektore guztietan aplikagarri diren berdintasunari buruzko aginduak ere aztertu behar dira; horiek guztiak, generoaren araberrako eraginari buruzko txostenak egiten lagundu duten materialetako alderdi juridikoei buruzko dokumentuan aurki daitezke.

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa

264/2011 Dekretua, abenduaren 13koa, Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia sortzeko eta bere funtzionamendua eta osaera arautzeko dena

5/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa

29/2011 Dekretua, martxoaren 1ekoa, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio mekanismoei buruzkoa

Etxean tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmena

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V.Plana (V. PIMH) IX Legealdirako jarraibideak.

Ertzaintza Berrantolatu eta Modernizatzeko Plana (PRME). Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren legealdiko programa-dokumentua.

ESTATUA

27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxean indarkeria jasaten duten biktimak babesteko agindua arautzen duena

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako oinarritzko babes-neurriei buruzkoa.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzekoa

Aukera-berdintasunaren Plan Estrategikoa (2008-2011)

EUROPA

Stockholmeko programa: «Herritarrak zerbitzatu eta babestuko dituen Europa ireki eta segurua». 2010

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako estretagia 2010-2015.

Europako Kontseiluaren 2003ko urriaren 20ko Ebazpena, gizakien –bereziki emakumeen– salerosketaren aurka borrokatzeko ekimenei buruzkoa.

Europar Batasunaren Zuzentarauak, emakumeen aurkako indarkeriari eta emakumeenganako mota guztietako diskriminazioen aurkako borrokari buruzkoak. 2008.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/54/CE Zuzentaraia, lan arloan gizonen eta emakumeen arteko aukera-eta tratu-berdintasuna printzipioaren erabilerari buruzkoa (bat egitea).

NAZIOARTEA

Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako ebazpena, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak ezabatzeko ahaleginak areagotzekari buruzkoa. 2010.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako ebazpena, bereziki egoera gatazkatsu eta antzekoetan bortxaketak eta beste mota guztietako sexu-indarkeriak ezabatzeari buruzkoa. 2008.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 135/2000 ebazpena, emakumeari, bakeari eta segurtasunari buruzkoa.

Beijingeko Ekintza Plataforma. 1995.

4. DATU-ITURRIAK

ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> Delituak zigor-lekuaren, delitu motaren eta sexuaren arabera 	<p><u>Zigortutako pertsonen estatistika.</u></p> <p>INE</p>	Urterokoa
<ul style="list-style-type: none"> Delitu eta huts egiteen biktima izandako pertsonak, duten sexuaren eta gertatu diren lurraldearen arabera. Etxean indarkeria jasan duten pertsonak, beren sexuaren eta egilearekin duten harremanaren arabera. 	<p>Ertzaintzak ezagututako etxeko indarkeriaren eta sexu-askatasunaren aurkako delituen estatistika -2008 (Emakunderen dokumentazio-zentroan eskura daiteke).</p> <p>Herrizaingo Saila</p>	Aldizkotasunik gabe
<ul style="list-style-type: none"> Genero-indarkeriak hildakoak EAEn. Genero-indarkeriak biktimizatutako emakumeak, indarkeria motaren arabera. Genero-indarkeria jasan duten emakumeak, indarkeria motaren arabera. 	<p><u>Genero-indarkeriaren emakume biktimak EAEn. 2011ko emaitzak.</u></p> <p>Herrizaingo Saila</p>	Urterokoa
<ul style="list-style-type: none"> Emakumeen edo gizonen segurtasun-sentipena bizi diren eremuan gaez bakarrik ibiltzeko. 	<p>Herritarren segurtasunari buruzko inkesta</p> <p>Herrizaingo Saila</p>	Aldizkotasunik gabe
<ul style="list-style-type: none"> Ertzaintzan lan egiten dutenak, mailaz maila eta sexuaren arabera. 	<p><u>Ertzaintzan diharduen langilegoa EAEn</u></p> <p>Eusko Jaurlaritza</p>	Urterokoa
<ul style="list-style-type: none"> Ertzaintzara sartzeko hautapen-prozesuetan aurkeztutako eskaerak, promozioaren, urtearen eta sexuaren arabera. Ertzaintzara sartzeko oposizio-faseko arrakasta, promozioaren eta sexuaren 	<p><u>Emakumearen egoera Ertzaintzan. 2011.</u></p>	Aldizkotasunik gabe

<p>arabera.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ertzainen banaketa, komisarien, unitateen eta sexuaren arabera. • Ertzaintzan mailaz igotzeko deialdietako arrakasta, sexuaren arabera. 2007-2011. • Ertzaintzako espezializazio-prozesuetako eskaerak eta arrakasta, deialdi motaren eta sexuaren arabera. 	<p>Herrizaingo Saila</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • BLZ zerbitzuak erabili dituzten pertsonak, sexuaren arabera. • BLZ zerbitzuak erabili dituzten pertsonak, motibazioaren eta sexuaren arabera. • BLZ zerbitzuak erabili dituzten pertsonak, kalifikazio penalaren eta sexuaren arabera. 	<p><u>Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak. Euskadi. 2008ko Txostena.</u></p> <p>Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila</p>	<p>Aldizkotasunik gabe</p>
<ul style="list-style-type: none"> • ALEZ zerbitzuak erabili dituzten pertsonak, sexuaren arabera. 	<p><u>Atxilotuari Laguntzeko Zerbitzuak. Euskadi. 2008ko Txostena.</u></p> <p>Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila</p>	<p>Aldizkotasunik gabe</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Kide anitzeko organoak, Sailaren eta sexuaren arabera. Kideak eta buruak, sexuaren arabera. 2008. 	<p><u>Emakume eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki guneetan.</u></p> <p>Emakunde</p>	<p>Aldizkotasunik gabe</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Emakume eta gizonen kopuru orekatua duten sarbide, hornikuntza edo igoeretako hautatze-prozesuen kopurua Herrizaingo Saileko enplegu publikoan. 	<p>Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako organismo autonomo eta erakunde publikoen jarduerari buruzko txostena</p> <p>Emakunde</p>	<p>Urterokoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Iraindu zaituenari jotzea bidezkoa dela 	<p><u>Igualdad y prevención de</u></p>	<p>Aldizkotasunik</p>

<p>uste duten nerabeen kopurua sexuaren arabera.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Batzuetan norik agintzen duen jakin dezaten besteei mehatxu egitea bidezkoa dela uste duten nerabeen kopurua sexuaren arabera. • Gauzaren bat ostu dizunari jotzea justifikaturik dagoela uste duten nerabeen kopurua sexuaren arabera. • Oldarkorragoa dirudien gizona erakargarriagoa dela uste duten nerabeen kopurua sexuaren arabera. 	<p><u>la violencia de género en la adolescencia.</u>, 2011.</p> <p>Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa</p>	<p>gabe</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Etxean aitzak agindu behar duela uste duten gazteen kopurua sexuaren arabera. 	<p><u>Adingabekoei balioak transmititzea. Txosten berezia.</u>, 2009.</p> <p>Arartekoa</p>	<p>Aldizkotasunik gabe</p>

5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK

- Análisis de la situación profesional de las mujeres hertzianas. Egileak: Gema Tomás, Mariola Serrano, Mónica Ibañez, Aitziber Barrutia eta Jon Leonardo Aurtenetxe. Deusto Fundazioa. 2009¹⁴.
- Beldur Barik: indarkeria sexistaren aurkako gida neska-mutilentzat. 2009.
- Igualdad y prevención de la violencia de género en la adolescencia. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. 2011.
- The Seven Ps of Men's Violence. Egilea: Michael Kaufman, Toronto, 1999.
- La situación de la mujer en la Ertzaintza. Egilea: Edurne González. Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Akademia. 2011.
- Adingabekoei balioak transmititzea. Txosten berezia. Arartekoa. 2009.
- Ertzaintza Berrantolatu eta Modernizatzeko Plana. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila. 2010.
- Gizonezkoen indarkeriak: indarkeriaren legitimazioa gizonen identitatearen eraikuntzan. Egilea: Xabier Odriozola. Maskulinitateak eta berdintasuna: jakintza alor anitzeko azterketa. Emakunde. 2011.

¹⁴ Emakunderen dokumentazio-zentroan eskura daiteke.



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER